


# SKOLAE

BERDIN BIDEAN  
CRECIENDO EN IGUALDAD



BERDINTASUNA GURE KONPROMISOA DA

**Nafarroako Gobernua**  **Gobierno de Navarra**  
Hezkuntza Departamentua Departamento de Educación

[www.educacion.navarra.es](http://www.educacion.navarra.es)



Bizitzaren hasierako etapetik, gure bizitza-proiektua izango dena aukeratzeko eta eraikitzen ikasten dugu. Ezagutzan, askatasunean eta etorkizunari buruz genero-baldintzatzaierik gabe erabakitze gaitasunean finkatu behar da prozesua, berdintasun-eza identifikatzen, haren aurka borrokatzen eta berdintasun-eskubidea gauzatzen (besteak beste, kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta sexu-orientazio bakoitzaren esparruan) ikasiz.

Heziketa-prozesu hori sistematizatzeko eta horretan akonpainamendua egiteko helburuarekin sortu zen SKOLAE . 2017-2021 Hezikidetzaren Planean -Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza-komunitateentzat onetsitako- ezarritako IKASKETA-IBILBIDEA garatzen du. Lau IKASKUNTZA ARDATZ handitan eta lau KONPETENTZIATAN egituratuta dago. Arlo pertsonalean, sozialean eta testuingurukoan aplikatzeko eduki eta esperientziak ditu. Ikasketa-ibilbide osoan zehar -0-3 urteko etapetik 18 urteak arte- ikasgeletan aplika ditezkeen baliabide didaktikoak eta 200 jarduera baino gehiago ditu. Prestakuntza, aholkularitza eta laguntza emateko plan bat du hasiera batean ezarri eta, gero, pixkanaka etapa edo ziklo bakoitzeko hezkuntza-programazioetan txertatzeko.

Halaber, ibilbide osoa zeharkatzen duten hainbat eduki gehitzen ditu SKOLAEk: emakumeen eta nesken aurkako indarkeriak prebenitzea; emakumeak eta beren ekarpenak ikusgai egitea; identitateekiko, kulturekiko, sexualitateekiko eta beren aniztasunekiko errespetua; berdintasunezko maskulinitate berriak eta feminitate ahaldunduak; eta berdintasuna gauzatzeko konpromiso partekatua eta partaidetza soziala.

SKOLAEk Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza-komunitateen lana inspiratu nahi du, ikasle guztiei BERDINTASUNEAN BIZITZEN IKASTEKO aukera emateko. Tokiko eragile askotarikoak koordinatzeko konpromisoa du oinarri, hazi eta ikasgeletatik harantz joan dadin; horrela, hezikidetzaren balioetan (eskola-ekintzarekin partekatze modukoak, baita horren hurbilekoak eta horrekin koherenteak ere) oinarritutako inguruak (familian, kulturean, kirolean eta aisialdian) sortzen lagunduko du.

SKOLAEren esperientzia pilotua 2017-18 ikasturtean hasi zen, hezkuntza-etapa guztietako 16 ikastetxetan. Helburua da datozen lau urteetan derrigorrez ezartzea Nafarroako 400 ikastetxe baino gehiagoetan. 2018-19 ikasturtean lehenengo orokortzea egin zen. Plana da 100 ikastetxe publiko eta itundu sartzea urtero, eta hezkuntza-zuzendari nagusiak ebatziko du zein izango diren.

## HEZKIDETZARAKO BIDEAN BAT EGITEN DUTEN LAU IKASKETAK

### ▶ **BEGIRATZEN JAKITEA, ULERTZEN JAKITEA**

KRITIKA ETA ERANTZUKIZUNA BERDINTASUNIK EZAREN AURREAN ikasketak: pertsona arduratsu era erantzule (bai maila indibidualean, bai kolektiboan), aktibo eta kritiko bilakatuko gaitu berdintasunerako bidean. Berdintasunezko eredu eta proposamenak ezagutzearen bidez.

### ▶ **ERAIKITZEN JAKITEA, EKARPENAK EGITEN JAKITEA**

LIDERGOA, AHULDUNTZEA, ETA PARTAIDETZA SOZIALA ikasketak maila indibidualean zein kolektiboan indartuko gaitu, eta berdintasunetik zein errespetutik gizarte-bizitzan parte hartzeko gaitasuna emango digu. Bakarka zein taldean berdintasuna eragiteko dugun ahalmena antzeman eta ezagutzearen bidez.

### ▶ **IZATEN JAKITEA, BIZITZEN JAKITEA**

AUTONOMIA ETA INDEPENDENTZIA PERTSONALA ikasketak bizitza-proiektu oso baterantz eramango gaitu, genero-estereotipoak eta mugatzen gaituzten bestelako baldintzatzaileak gaindituta. Ingurune aske eta independenteetan geure burua eta besteak zaintzen jakitearen bidez.

### ▶ **SENTITZEN JAKITEA, TRATU ONA EMATEN JAKITEA**

SEXUALITATEA ETA TRATU ONA EMATEA ikasketak harremanak eta maitasunak eraikitze autoezagutzan lagunduko digu, aniztasuna onartuta eta harekiko errespetua erakutsita, indarkeria matxistetatik urrun.

Osasun Departamentuko Osasun Publikoaren Institutuaren, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren, Nafarroako Eskola Kontseiluaren, familien, irakasleen eta hezikidetzaren arloko adituen inplikazioarekin diseinatu ditu Hezkuntza Departamentuak SKOLAE programa eta hezikidetzako ibilbidea. Dena den, guraso-elkarteak, eskola-kontseiluak, tokiko teknikariak, gazte- eta aisia-elkarteak, eta hezkuntza-munduarekin zuzen edo zeharka lotutako pertsona eta entitateak ere hartuko ditu prozesu parte-hartzaileak hurrengo urratsetan.

SKOLAEk, jarraitu eta ebaluatu egingo baita, Nafarroako ikasleengan izandako inpaktuaren bilakaera egiaztatu ahal du, eta berdintasunerako aldaketaren joerak zein haiek sendotzeko beharrezko zuzenketak egin.

Izan ere, SKOLAEren bokazioa gure hezkuntza-sistemaren giltzarria izatea da, hori baita aldaketa sakon eta iraunkorren bermea. Horretarako, berdintasuna era erreal eta eraginkor batean jorratu behar da, transbertsalki, hezkuntza-sistemaren alor guztietan.

# HEZKIDETZA

## GURE BIZITZA-PROIEKTUA BERDINTASUNEAN ERAIKITZEKO KONPROMISO EGINGARRI ETA ZEHATZA

### ▶ **PERTSONA ALIATU ETA ARDURATSUAK OINARRI**

Zuzendaritza-taldea, hezkidetzako koordinatzaile bat eta ekipo sustatzaile bat, ikastetxe bakoitzean

Koordinazio- eta kudeaketa-taldea eta Hezkuntza Ikuskaritza, Hezkuntza Departamentuan.

Koordinazio-pedagogikoaren taldea, hizlariak eta kanpoko tutoretzak.

Sistemaren unibertsitate aurreko etapa guztietako familia eta ikasleak

### ▶ **IKASKUNTZARAKO ETA HEZKUNTZA-BERRIKUNTZARAKO HAINBAT BALIABIDEREKIN**

Hezkidetzako ibilbide bat, adin guztietarako ikaskuntza-helburuekin.

Ikasgeletan erabiltzeko 200 orientabide didaktiko baino gehiago; egutegi bat proposatuko da etapa bakoitzerako.

Orientabideak ikastetxearen diagnostikoa egiteko eta ikastetxeko hezkidetzaren identitatearen proiektua aurrera eramateko.

Lau mailatan ardaztutako prestakuntza-plana:

SKL 1 hasiera (35h), ikastetxeko hezkidetzaren identitatea (15h), SKL praktikan (25h), SKL sakontzea.

Hitzaldien bideoen funts irekia.

SKOLAE lan eta esperientziei buruzko erakusketa ibiltaria.

Liburutegi ibiltaria, hezkidetzaren inguruko 700 liburu baino gehiagoz osatua.

Jarraipena egiteko eta ebaluatzeko tresna.

SKOLAE gidak irakasleentzat, ikasleentzat eta hezkuntza-komunitatearentzat.

Informazioa eman eta jakitera emateko webgunea [skolae.educacion.navarra.es](http://skolae.educacion.navarra.es)

## BERDINTASUNA HEZKUNTZA-SISTEMAN TXERTATZEKO

### IKUSGAI



Ikastetxe guztietako egunerokoan, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, Urteko Programazio Orokorrean, Tutoretza-Planetan, etab.

### PARTE HARTU BEHARREKOA



Hezkuntza-maila guztietako irakasle eta ikasleek.

### PARTEKATUA



Familiekin.

### KOORDINATUA



Hezkuntza-erakunde ez formalekin eta tokiko ingurunearekin.